


Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1995eko azaroak 9 • 86.zka. •



Koldo Iriarte: Bake Epailea

HIESaren inguruko sensibilizazio astea

Kirolak: Behobia-Donostia lasterketa

Egurra ikatza bihurtuz



Hauxe zeuretzat.




Beste hauxe, zeure lagunik kutunarentzat.

Zure lagunik kutunena Gazte Kontu bat irekitzera ekarriz gero, dagoeneko zuk gozatzen dituzun abantailez gozatzeaz gain, Postsa-Zorro praktiko bat eramango du. Eta zeuk beste bat eramango duzu.




CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Txondorra ze den badakitzu?

Santiago Lonbide
(Jubilatua)

Sua egitekoa da txondorra. Lehen mutikoa nintzela egiten genuen, baina gero guk solorik eduki ez dugunez...



Josepi Barandiaran
(Langilea)

Entzunda daukat berba hori. Nik bedar multzoa dela uste dut eta baita egur ikatza ateratzekoa. Tasio filmean ikusi nuen.




Aurora Aspiazu
(Etxekoandrea)

Kilometro egunean Oñatin ikusi nuen bat. Lehen bizimodua egur-ikatza eginez ateratzen zuten batzuk.



Pako Axpe
(Jubilatua)

Ikatza egiten da txondorraz. Ez daukat ikusita, baina egurrak txukun jarri eta gero egosi egiten dira. 15 bat egun behar izaten du.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

Zilarrezko ezteiak

Kaixo, zer moduz?

Familia Pastoraleko partaideak gara eta geuk ere aurten betetzen dugu gure ezkontzaren 25. urteurrena.

Guztiok elkarrekin ospatzeko arrazoi ona iruditzen zaigu, bakoitzak bere aldetik ospatu duen edo ospatu nahi izango duen arren.

Parrokiara hurbiltzea egoki irudituko zitzaizuela pentsatu dugu, meza edo antzeko zerbait egiteko asmoarekin, eta era berean Jainkoari eskerrak eman 25 urte hauegatik, bizi izandako zoriontasunagatik, eduki ditugun seme-alabengatik, ditugunok; eta azken finean urte batzu dela hartutako konpromezua berritzeko gogoz.

Ez dugu gauza zailtan pentsatu, gure seme-alabekin konpartitzea baino.

Esandakoarekin interesatuak bazaudete, etxera dei diezagukezue, 79 37 83 telefono zenbakira hain zuzen, gaeko 10ak eta 10 térdiak bitartean.

40 bat senar-emazte izango gara deitutakoak.

Besterik gabe, agur bero bat.

Mari Carmen eta Pedro

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia
Erredakzio-kontseilua: Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantazu Abasolo, Xabin Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabere, M.J. Aretxaga, Loramendi E., Udala, Aitor Antxia, Iñaki Urreta. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Datorren urterako zerga eta tasen igoera onartu du Udalak

1996. urterako, udaleko ordenantza fiskalen proposamena eginda dago. Oraindik aldaketarik egon daiteke, baina momentuz zergen eta tasen aldaketak hauek dira:

Hiri lurraren gaineko zergaren koefizientea % 1 igo da eta oinarria barriz 3,5ean. Ibilgailuen gaineko zerga, autoena % 4,5a igo da.

Udaleko zerbitzuak erabil-tzeagatik ordaindu beharreko tasak barriz, honako igoera hau izango dute. Zabor bilketak, % 4,5, horrela, zaborraren prezioa 425 pezetatakoa izango da hilabeteko.

Edateko urak, % 3,5eko igoera izango du. Gutxieneko ur kontsumoa 30 metro kubikokoa da. Hortik gora gastatutako metro kubiko bakoitza barriz, 104 pezeta ordaindu beharko da.

Kiroldegiko tarifek ere prezio barriak izango dituzte. Familiko abonua normala, 13.500 pezeta izango da. Bakarkako abonua barrez, 25 urtetik gorakoa denean 10.000 pezetakoa; 18tik 25 urtera bitartekoa denean 6.500 pezetakoa eta 14tik 18 urtetara bitartekoa denean 4.000 pezetakoa.

Urats-Gain Zaharren Egoitzari dagokionez, % 4,5 garestituko da. Horrela, Aretxabaletakoak diren hirugarren adinekoek 68.150 pezeta ordaindu beharko dute hilero egoitza. Atxabaltarra baina elbarritua izan ezker edo kanpotarra, 79.525 pezeta. Eta azkenik kanpotarra eta elbarritua izan ezker, 90.850 pezeta hileko.

Kanposantuko hilobiratze zerbitzuek ez daukate aldaketarik.

Artisau ferixa Leintz Gatzagan

Gatzagako artisau kolektiboak, udalaren laguntzaz, artisau langintzen ferixa antolatu du. Azaroaren 12an goizeko 10,30etatik 14etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara, artisau langintza desberdinak ikusgai izango dira herriko frontoian. Langintzen artean albarkak, tapiz, larrugintza, Euskal keramika, aintzinako musika tresnak, ehun artisautza, egurrezko taila, maskarak, txontxon-giloak, burni forjaketa, danbolinak, bitxigintza, e.a. egongo dira.

Aintzinako artisau lanbideen prozesua ezagutzera emateaz gain, txalapartariak, trikitalariak eta Kukubiltxo taldea ere bertan izango dira.

San Millanak Arkarazon

Datorren azaroaren 11 eta 12an San Millan jaiak ospatuko dira Arkarazon. Zapatuan eguerdiko ordu 1etan meza nagusiaz emango zaie jaiiei hasiera. Ondoren auzo bazkaria egongo da trikitalariekin lagunduta. Arratsaldeko 5etarako gaztetxoentzako jokuak antolatu dira eta zaharragoentzako bolo txapelketa. Domekan eguerdiko 12etan meza emango da auzoko hildakoen alde eta ondoren luntx-a. Arratsaldeko 5etan bolo txapelketaren ostean jaiiei amaiera emango zaie.

1996rako ur eta zabor zerbitzuarengatik faktura minimoa:

ARETXABALETAKO UDALA		ORG. AG. ZK. / N.º REGIO X
Zerga/Concepto: Epea/Periodo:	URA-ZABORRA HIRUHILABETEKOA	ERREREFERENTZIA / REFERENCIA XX
		URTE/ANO (PDUR/PERO) 96
<p>URA 30x67 = 2.010</p> <p>URA: 2.010 BE2 %7:141 ESTOLDERIA:603 ZABORRA:1275 1.009</p>		
XX		KUOTA / CUOTA ▶ 74.0097
KUTXA-BANKOA CAJA-BANCO	SANJUSALA SUCURSAL	K.º KTE. ZK. N.º CTR. CTE.
<small>GAINARGURIK GABEKO ORDANKETA INGRESO SIN RECARGO</small>		
DESDE	TIK HASTA	PA
<small>UDALETXKO KONTUAN SARTZEKO HARTU DUGU HEMOS RECIBIDO PARA SU INGRESO EN LA CTR. DEL AYUNTAMIENTO</small>		



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

“ARINSA”

Basabe Poligonoa “EO-10”
Tetefonoa: 79 62 80
ARETXABALETA (GIPUZKOA)

HIESaren inguruko sensibilizazio astea

Aretxabaletako Udaleko prebentzio zerbitzuak, HIES Ekimenarekin batera HIESari buruzko sensibilizazio astea antolatu du, azaroaren 14tik 17ra bitartean.

Egun guzti hauetan 7 eta 8. mailakoendako diapositiba emanaldiak eskainiko dira eskolaurrean (herriko plazan), goizeko 10etatik 12etara

bitartean.

Herritarrontzako ekintzarik ere egongo da: "Testimonios Sonoros-Antorcha" eskainiko da egunero 6retatik 8retara Herriko Plazan.


Azaroaren 15ean, informazio bideoak eskainiko dira eskolaurrean, 6retatik 8retara bitartean.

Azaroaren 16an, HIESa eragiten

duen birusa dela eta mahai ingurua antolatu da. Bertan, mediku, afektatu, eta familiarteko bat egongo dira. Arratsaldeko 7retan izango da eskolaurrean.

Azaroaren 17an, "El aceite de la Vida" pelikula eskainiko da eta ondoren debatea egingo da. Arratsaldeko 6,30etan izango da, hau ere eskolaurrean.

VII. Loramendi literatur lehiaketa



Abenduaren 22an bukatuko da epea

hartu dezake. Lan danak argitaratu bakoak eta euskaraz izan beharko dute eta pertsona bakoitzak ezingo du lan bat baino gehiago aurkeztu.

Lau maila egongo dira:

- Lehen hezkuntzako 2. zikloa
- Lehen hezkuntzako 3. zikloa
- O.H.O.ko 7-8. mailak
- 15etik 18 urtera bitartekoak.

Maila bakoitzean bi talde egingo dira, batetik D ereduan ikasten dabiltzanak eta bestetik B ereduan edo murgiltze ereduan dabiltzanak. 15 urtetik 18 urtera bitartekoetan ezik.

Lehiaketak bi sail izango ditu: poesia eta ipuina. Gaia libreza izango da.

Lanak "Eskolarteko VII. Loramendi Literatur Lehiaketa" izenburuaz, Loramendi Elkartearen lokalera bidali beharko dira.

Lanak bidaltzeko epea abenduaren 22an bukatuko da. Sariak bonotan emango dira, gero dendetan materialen truke aldatzeko. Hori bai, partaide guztiek saria jasoko dute.

Informazio zehatzagoa gura izan ezkererako Loramendi Elkarteko lokalera.

Guraso topaketak

Aretxabaletako Udaleko prebentzio zerbitzuak, gurasoen arteko II. topaketak antolatu ditu.

Guraso eta seme-alaben arteko gai interesgarriak jorratuko dira, seme alabak zelan hezi behar diren eta egoera konkretuetan irtenbide egokiak hartzeko gaitzea izango da topaketa hauen helburua.

Topaketak lau egunetan luzatuko dira, azaroaren 20tik 23ra arte eta Kurtzebarri eskolan izango dira; arratsaldeko 6retatik 8retara. Topaketak IZADI, gizarte gaiez arduratzen den elkarteak eramango ditu aurrera.

Topaketa hauetan parte hartu gura duenak, Kurtzebarri eskolara edo udaletxera hurbildu behar du, azaroaren 17a baino lehenago.

Azken urteotan moduan, LORAMENDI Elkartek, Udal Euskara Batzordearekin batera, Aretxabaletako Eskolarteko VII. Loramendi literatur lehiaketa antolatu du.

Lehiaketa honetan Aretxabaletan jaio, bizi edo ikasten duen edonork parte

DOIKALSE

Elektroerosioa
Zuzendua

Poligono Basabe C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Epelde

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Urriaren 14an, Kolonbiako "El nuevo día" egunkariak, Aretxabaleta eta Galartzako Dorretxeari buruzko idatzi zabala argitaratu zuen. Egun horretan 445 urte bete ziren gure herriko seme izandako Andres López de Galarzak

Ibagué hiria sortu zuenetik. Andres López de Galarza Galartzako Dorretxean jaio zen baina Ameriketara jo zuen gero. Gaur egun Ibagué-n Tolima departamentuko hiriburuan, 400.000 biztanle bizi dira.

Idatzi hau, Aitor Antxia eta Iñaki Urretak egindako lanari esker argitaratu ahal izan da. Eurak izan dira bertako Hector Galeano Arbelaizekin harremanetan egon direnak. Gizon hau izan da Kolonbian lan hau aurrera eramane duena.



IBAGUE - COLOMBIA, SABADO 14 DE OCTUBRE DE 1995, No. 1036 AÑO 3.

El fundador de Ibagué provenía de una familia muy tradicional vasca. Su casa es hoy monumento

Casa Torre, símbolo de jerarquía

La cuna Galarza



Ez dira egunero ardiak herriko kaleetatik pasatzen ikusten. Domu Santu egunean, 250 ardik osatutako artaldeak goitik behera gurutzatu zuen Aretxabaleta. Udan mendian egon ondoren, negua pasatzera etxera ekarri zituzten Galartzako Etxezuri baserrikoek. Arrastorik ere utzi zuten bidean baina ondo dotore zeharkatu zuten gure herria.

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



ARGÍ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE

Tfnoa: 77 11 30

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45

ESKORIATZA

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9

Tfnoa: 79 19 79



KELER



El León

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea

Industrialdean

Tfnoa: 79 60 65




Koldo Iriarte: "Bake epaileok herriari laguntzeko gaude"

Informazioa eman, zibilez ezkondu, aholkuak eman eta horrelako lanak egiten dituzte herrietako bake epaileek. Ez dira lege munduan profesionalak baina ahal den neurrian behintzat herritarroi laguntzeko prest daude. "Denuntzietan edo legegintza zerikusia duten gorabeheretan laguntzeko gaude gu. Ahal bada bi aldeetako arteko arazoa konpontzea da gure lana, baina askotan ezin izaten dugu gauza haundirik egin eta kasuak Bergarako epailearengana pasatzen dira orduan". Horrela deskribatu digu Koldok bere lana. Koldo Bergarako epailearen menpe dago eta ez du inolako zerikusirik Aretxabaletako Udalarekin, lokala Udaletxean dagoen arren.

Lau urtetik lau urtera barritzen dira bake epaileak. Konbokatoria bat aurkezten da eta bertan gura duena apuntatu. Minimo batzuk bete behar ditu, irakurten eta idazten jakitea, Aretxabaletan bizitzea, e.a. Aurkeztutako lista hau udaletxeko plenora eramaten da eta plenoak izendatzen du bake epailea zein izango den eta baita bere ordezkia ere. Erabaki honi azken onarpena Bilboko Justizi gorenak ematen dio. Biztanlegoaren arabera hileko diru kantitate bat kobratzen du bake epaileak, Aretxabaletako kasuan hileko 20.000 pezetara dira.

**Koldo Iriarte
Aretxabaletako bake
epailea da. Dagoeneko bost
urte bete ditu lan honetan
eta oraindik beste hiru urte
egin beharko ditu.**



Koldoren aurreko bake epailea, Aitor Antxia izan zen baina hau udaletxean sartu zenean Koldo jarri zen bere ordezkia. Hurrengo lau urtetarako ere bera aukeratu zuten barrero eta horregatik Koldok bost urte egin ditu bake epaile lanetan eta oraindik beste hiru egin beharko ditu. Koldoren ordezkia Angel Bengoa da.

Zibilez ezkontzen diren bikoteak ezkontzea ere Koldoren egin beharrekoa da. Orain artean 12 bat bikote ezkondu ditu. Lehenengo bikotea Arrasaten ezkontzea tokatu zitzaion. Oso urduri zegoela gogoratzen du "urduri nengoen baina bertan zegoen idazkariak gauza bat esan zidan eta arrazoi guztia zuen; "lasai egon zaitez, ezkontzera doazenak zu baino urduriago egongo dira eta".

Zibileko ezkontzak oso motzak izaten dira. Kodigo zibileko hiru artikulu irakurtzen dira, gero konpromezu galderak egin eta zazpi bat minututan eginda dago dena. Pleno aretoan egiten dira, eta normalean eguakotx arratsaldetan edo zapatu goizetan. Bake epaileak, ohitura den moduan toga jartzen du.

Azken finean, gogoan izan bake epaileak edozein momentutan herritarroi laguntzeko prest egongo direla.



BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO JAKIAK
GIRO ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABALETA

CONSTRULAN ARQUERO ANAIK

Indusketa eta
etxagintza lanak

Basabe Poligonoa, 4 EO-11
Tfno eta faxa: 79 01 51
ARETXABALETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta



GARAGE NORTE S.L.

Zerbitzu Ofiziala

Basabe Poligonoa, A-1-3
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86
ARETXABALETA



Ibaiak ez dira horrelakoak



Kanalizazio oker honekin Deba ibaia hil dugu

8.000 urte badira azken izozte garaia bukatu zena. Eguraldiaren hobetze honi esker, euskaldunak haitzuloetatik irten eta bailara barrenetara jeitsi ziren, ibaien albora, eta bertan herriak eraiki zituzten. Baina Kantauri Arroa oso menditsua dugu eta Leintz Bailara (bertako bailara guztiak bezala) oso estua bada ere bertan jende asko bizi da eta lantegiak ere ugari ditugu. Honen eraginez, azalera berriak lortu nahian, ibaiak kanalizatu egin dira.

Aretxabaletan bertan ere badugu arazo honen aztarnarik, izan ere gure Deba ibaia herriaren punta batetik besteraino bideratu baitugu historian zehar.

Kanalizazioaren eragin latzak

Kanalizazioak dakarren arazorik larriena, ibaiertzetako landare-komunitateen galera da. Ibaia bideratzean burutzen den deforestazio honek aurrez geneukan oreka naturala hautsi egiten baitu hainbat alderditan:

Batetik, agerian gelditzen den **lur-zorua antzutu** egiten da, uraren korrontek elikagaiak eraman egiten baititu. Lur hori kolonizatuko duten belar apurrik ezin izango diete elikagaiei eutsi.

Bestalde, ibaiertzetako landare-

komunitateek ura depuratzeko ahalmen haundia dute, eta kontutan izanik Deba ibaiaren egoera, kanalizazioak **errekaren kutsadura-maila igo** egingo luke.

Hirugarrenik, urak bideratzeko zemento grisezko hormak eraiki izan dira, ibaiak barnean zeukan bitzta guztia desgertaraziz.


Azkenik, euria ari duenean lurrak ezin du ur guztia asimilatu (are gutxiago zementoak) eta


ondorioz ura maldan behera ibairaino irristatuko da **uraren bolúmena haundituz**.

Ibaia kanalizatzean uholde arriskua gutxitzen deneko kontua egia da, bai, uraren abiadura haunditu egiten baita. Baina hau Aretxabaletarentzat probetxugarria bada ere, ibaiaren bukaeran dauden herrientzat guztiz kaltegarria izan ohi da, izan ere, berauetan, ura, normalean baino azkarrago pilatzen baita, eta horrela gainez egiten du. Mendáro dugu adibide ona.

Birpopulazioa dugu konponbidea

Progresoari ezin zaizkio atak itxi, eta gure herrietan leku arazoak haundiak direnez, garai batean Deba kanalizatzea erabaki zen. Ondorioz horrelakoa da orain dugun Aretxabaleta. Baina egiten den guztia ganoraz egin behar da, natura ahal den heinean errespetatuz. Ezinbestekoa dugu beraz ibai ertzak birpopulatu aurrez aipaturiko arazoei konponbidea emateko. Horrela ibaiertzetako landaredia sartu beharko litzateke, hala nola, haltzak, sahatsak, intsuak, lizarrak, zuhandorrek, urretxak,... eta abar.

 **Mikel Arroiabe**



**LOGOPEDIA
ZENTRUA**

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

GATZAGAn,

ERDI ERDIAN

**ZUHAITZ
jatetxea**



Zenbaki

Aholkularitza

Basabe Industrialdea
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75
79 75 99



Ikazkinak, desagertutako ofizioa

Urteetan barrena, Ugaztegi ingurua txondor tokia izan da. Txondor asko altxatu, egosi eta ikazkin askoren zakuak bete izan dira bertan. Bizimodua ateratzeko bidea izan da ikatz egitea; lantegian lan egin edo baserrian lagundu beharrean ikazkin joaten ziren asko mendira. Horrela, gure inguruko mendiak ikazkinez beteta zeuden garai batean.

Lehen baserri gehienetan egiten zen txondorra, ez ikatza saltzeko, etxeko lanetan erabiltzeko baino, plantxa berotzeko, braserorako, e.a. Beste batzuk ofiziotzat zuten egurra ikatz bihurtzea eta basoaren emaitzetatik bizi ziren.

Olentzero bera ere ikazkina ei zen. Zaku bete ikatzekin jeisten zen menditik gabonetan, aurpegi eta inguruak guztiz beltziturik, ikazkin batek ohi duen moduan. Oraindik ere, Olentzero, Euskal Herriko pertsonaia mistikoa, gabonetan jeisten da gure artera, batzutan opari gustokoak ekarriz eta ikatza beste batzutan.

Gaur egun, gizon banaka batzuk jarraitzen dute egurra ikatza bihurtzen duen aintzinako langintza honetan. Desagertutako ofizioa bada ere, oraindik egiten dira txondorrak norberaren erabilerarako ikatza egin asmoz. Gure herrian ere, txondor egiten habilezia duenik bada. Hori erakutsi digute behintzat iraila eta urria bitartean Degurixako magaletan txondorra egin duten lau lagunek. Agustín Zugasti, Jesus Etxabe, Ignazio Urkia eta Juan Mari Urkia aritu dira ikazkin lanetan. Batzuk maixu eta beste batzuk ikasle izan dira.

Agustinen gogoetak

Agustín Zugasti, koruetarra, ikazkina izandakoa da. 1942. urtean hasi zen langintza honetan eta hara zelan deskribatzen dituen ikazkin izandako denborak. *“Gure etxean ez zen dirurik egoten eta nonbaiten lana egin eta atera behar izaten genuen. Tartean soldaduzkara joatea ere tokatu zitzaidan eta hara bialtzeko ere dirua behar nuen. Ikazkin modura ateratzen nuen diru guztia aita-amei uzten nien, eurak mantentzen ninduten eta”*. Bere bizitzan makina bat txondor eginikoa da, baina inoiz ez bakarrik. *“500 txondorretan parte hartutakoa naiz baina sekula ez naiz bakarrik ibili, beti lagunekin. Hiru-lau lagun ibiltzen ginen normalean. Fabrikara joan beharrean urte osoa txondor egiten joaten ginen mendira. Apirilean egurra botatzen genuen, hostoak irtetzen hasi baino lehen, zatitu eta horrelako lanetan abuzturarte egoten ginen. Gero irailean hasi eta azarorarte etxondorrak altxatzen ziren.”*

Ikazkinena egon den ofiziorik pobreena da Agustinen ustez. *“Guk karuen saldu genuen ikatza, kilo, 85 zentimotan saldu genuen eta hori 1951. urtean izan zen. Hura baino merkeago saldu genituen beste guztiak”*.

Txondor honetan pagoa da ikatz egiteko erabili duten egurra. Egurra mailaka jartzen da. Barrenean, egur haundienak eta sendoenak jarriko dira. Erdian tximinia egingo zaio.



“Txondorra ondo estaltzea eta zaintzea beharrezkoa da, bestela zuloak egiteko arriskua dago”

Oraingoak baino garai gogorra goak ziren haiek. Gaur egun oso jende gutxi daki lehenagoko ikazkin haien barri. Hala ta be, Agustinek pozik kontatu dizkigu txondorren inguruko jakin beharrezkoak.

Egur batzea eta metatzea

Egur batzea, txondorra altxatu aurretik egin beharrekota da. Agustinek lan gogorra moduan deskribatzen du. *“Udaberri aldera egurra botatzen da eta uda guztia egur txikitzen eta gertatzen eman ondoren udazken aldera altxatzen da txondorra”*.

Txondorra ez da edozein tokitan egiten, toki egokian jarri behar izaten da. *“Lautada moduko bat izan behar du eta honi txondor-zuloa esaten diogu”*. Askotan lehenagoko txondorren bat egoniko lekuan ere jartzen da, eta lur hori txondorra estaltzeko erabiliko da gero.

Txondor-zuloa aukeratu ondoren egurrak jartzen hasiko dira. *“Hau ere ez da lan erraza -dio Agustinek- lehenengo egur ilada bat jartzen da zutik eta borobilean. Barreneko iladan egur haundienak jarriko dira. Horrela, egurra mailaka jartzen joaten da, eta erdian tximinia egiten zaio. Gero goruntz berak eskatzen duen neurrirarte jarriko dira egurrak”*.

Behin egurrak jarri ondoren, txondorra estali egiten da, lehenengo orbelaz eta gero lurraz. Horrela egurra prest dago egosten hasteko eta txondorri barrenean hiru-lau zulo eginez sua emango zaio.

Ikazkina beti ondoan

Ez da erraza egurra ikatza bihurtzea. Egurra ez da erre behar egosi baizik eta barruan duen ur guztia kendu.

Behin txondorra piztu eta gero, ikazkinak zulo batzuk egingo dizkio txondorrari, horrela airea barrura sartu eta poliki-poliki egosten joan dadin. Kontu haundia izan beharko da hemen, zulo haundiak egin ezkerro egurra erretzeko arriskua dago eta zulo txikiak egin ezkerro barrez, txondorra itzaltzeko.

Egurrak 15 bat egun beharko ditu ikatza bihurtzeko eta denbora honetan ikazkinak txondorra zaintzen egon beharko du. *"Txondorra ondo estaltzea eta zaintzea beharrezkoa da. Egurra erretzen bada hauts bihurtuko da eta zuloa egingo zaio txondorrari. Hau gertatuz gero egur gehiago botako da eta honi "betegarria" esaten zaio".*

Burdina zarata

Txondorrek bukatuta dagoen jakiteko kerik ez du bota behar, honek ikatza eginda dagoela esan nahi du. Orduan ikatza ateratzeko lana hasiko da. *"Muturra beltzitzen da hemen, ikatza aztertu eta hauts haundiak urteten du gorantz. "Txondorra garbitu" esaten zaio honi".* Ikatza zabaldu eta hozten utziko da eta egin ez den egurra kendu. Behin itxungita dagoela ustez gero ikatz zati haundienak zakueta sartuko dira. Txikienak barriz galbaian pasatuko

dira, hauts hondarrak kentzeko.

Ikatzak ere badu mailarik. Gauza denetan moduan, hobea edo txarra goa izango da. Ikatzak, ona izateko burdin zarata atera behar du eta lingo kolorea eduki. Horren arabera Agustinek berehala igartzen du ikatza ona den ala ez, *"zarata motela ateratzen badu ez da ikatz ona".*

Ikazkinek beren hiztegi propioa izan dute beren ofizioan, "txondorzuloa", "betegarria", eta "txondorra garbitu" moduko berbak erabili izan dituzte. Orain barriz, libururen baten edo batzuen gogoetetan gordeko diren berbak izango dira. Gehiago nekez erabiliko dira eta. Tasio Otxoa, Euskal Herriko azken ikazkinetako batek, bere garaian esan zuen moduan: "batzuk joanak, bertzeak hilak, hementxe niagok ni, mendian gohiti eta beheti eta hik erraiten duken



Agustin Zugasti ikazkina eta Joxe Mari Urrutia artzaia Degurixako txabola batean

moduan, azken ikazkina".

Ikazkinen ofizioa desagertu zen. Hala ta be, baliteke oraindik han eta hemen txondorren bat ikustea. Oraingo kasu honetan moduan, maixuek ikasleei erakusten badiete, izango da geroan ere Euskal Herriko langintza hau ze zen jakin eta ikusi ahal izango duenik.



Txondorrean erabilitako lanabesak:

Ikazkinek erabiltzen dituzten lanabesen artean, baserriko lanabesak daude. Txondorra egiten erabiltzen den lehenengo lanabesa aizkora da. Egurra ebatzen eta txikitzen erabiliko da. Gero, behin txondorra altxatuta eta estalita dagoenean, belaukixe eta palarra erabiliko dira txondorra zapaltzeko. Biek funtzio berdina dute baina belaukixe egurrezkoa da eta palarra burdinezkoa. Azken hauekin poliki-poliki ikutu behar da txondorra, eta inon zulorik duen ikusi. Txondorraren azken fasean, eskuarea ibiliko da ikatza aztertzeko eta ateratzeko. Azken azkenik, ikatza galbaian pasatuko da ikatzari hautsa kentzeko. Garai batean galbaia ikatz neurriak neurtzeko ere erabiltzen zen, horrela galbaikada ikatzekin zaku bete ikatz egiten zen.



U.D.A. klasifikazioan laugarren postuan



UDAk hiru puntu eskuratu zituen pasatu den domekan bergararren kontra jokatu zuten partiduan. 2-4ko emaitzarekin bukatu zen partidua. UDAk lehenengo zatian sartu zituen lau golak. Golegileak, Alberto Garro (2 gol) eta Kerman (2 gol) izan ziren.

Bergarrek bigarren zatian sartu

zituzten bi golak baina atxabaltarrek ondo eutsi zioten markagailuari eta garaipena eskuratu.

Partidu honen ostean, klasifikazioan laugarren postuan dago UDA, 17 punturekin. Datorren partidua, tolosarren kontra jokatu dute Ibarren. Partidua domekan izango da arratsaldeko 4,30etan.


Beste partiduak

Lehenengo erregionalekoek 0-3 galdu zuten Intxaurtuetaren aurka. Klasifikazioan 12. postuan daude, 12 punturekin. Datorren partidua kanpoan jokatu dute, Euskalduna taldearen kontra.

UDAk neskak ez ditugu oso momentu onean. Joan den domekan derbia jokatu zuten arrasateko nesken aurka. 0-8 emaitzaz nagusitu ziren arrasatearrak. Horrela klasifikazioan 19. postuan daude UDAko neskak.

Azken hauek baino dexente hobeto ari direnak Ohorezko ligako jubenila eta Bigarren jubenila dira. Ohorezko ligako jubenila 2. dago klasifikazioan. Azken partiduan 5-0 ondarrutarren kontra nagusitu ondoren.

2. jubenila barrez, lehenengo doa klasifikazioan. Hauek ere emaitza polita lortu zuten Lagun Onak taldearen aurka, 6-3 nagusitu ziren.



EGUZKI GRAF
Aldizkariak
Inpresoak
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxe: 943- 79 29 41

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

JOSU
HARATEGIA
URDAITEGIA-
GOZOTEGIA
KROASANTEGIA
"JANARI
PRESTATUAK"

GUREA
TABERNA
JATETXEA

Durana Kalea
Tfnoa: 79 20 64

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Aretxabaleta

IZOTZ
TABERNA

Mitarte, 16
☎ 79 73 65

ANGELINES



Autozerbitzua
Mitarte, 16 ☎ 79 61 42



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte kalea, Z/G
Tfnoa: 79 85 57

GEMES
EPILATERM
Min gabeko depilazioa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta



Lurrindegia
Opari- denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Atxabaltatik partaidetza haundia Behobia-Donostia lasterketarako



Datorren azaroaren 12an Behobia-Donostia lasterketaren XXXI. edizioa egingo da. Atxabaltatik ere autobusa antolatu da; batzuk lasterketan parte hartzera joango dira, animatzera beste batzuk. Aurreko urteetan ere atxabaltar asko joan izan da lasterketa honetara eta aurrean ere koadrila majoa doa. Hoiere artean, Jesus Lombide, Felis Beltran de Heredia, Aitor Irure, Pedro Mari Azkargorta, Aitor Atxa, Ramon Eraña, Amaia Gastañaga, Joseba Larrinaga, Dabid Perez, Unai Beitia, Sergio Romero, Patxi Arbonies, Floren Elortondo, Maite Mateo, Beñat Markaide, Ramon Jausoro, Joseba Gonzalez, Iosu Lanzos, Luis Larrañaga, Jabier Mar, Ramon Barrutia, Ibai Jauregi, Migel Perez eta Oier Aranzabal. Errepresentazio ona joango da gure herritik eta gainera guztiek kamiseta berdina eramango dute. Esan behar da, Ramon Jausoro faboritoen artean dagoela.

Animo eta zorte on lasterketan parte hartuko duzuen atxabaltar guztioi.



Patxi Arbonies
50 urte

Laugarren aldiz hartuko du parte Behobia-Donostia lasterketan.

• **Zelakoa izan da aurreko urtetako esperientzia?**
Oso egun polita izaten da. Autobusean denok batera joaten gara eta lasterketa egin ostean bazkaria izaten dugu.

• **Zelako ibilbidea da?**

Oso buelta polita da. Garrantzitsuen lasterketa bukatzea da. Markak ez du garrantzirik baina preparatuta joan behar izaten da.

• **Gogorra da lasterketa?**

Nahikoa gogorra da. Mirakruz gaina igotzea oso gogorra izaten da. Indarrak hasieratik neurtzea garrantzitsua da. Behin Bulebarrean sartu ostean, bertan dagoen giroaz konturatu gabe heltzen zara helmugara.

• **Zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Eguna, bere osotasunean gustatzen zait, oso giro polita egoten da.



Amaia Gastañaga
19 urte

Lehenengo aldiz parte hartuko du Behobia-Donostia lasterketan.

• **Ze helburukin zoaz Behobia-Donostia lasterketara?**

Nire helburua lasterketa amaitzea da.

• **Asko entrenatu zara?**

Egia esan ez. Azken aldiari ibili naiz entrenatzen.

• **Gogoz zaude joateko?**

Orain bai behintzat. Gero bueltan ikusiko dut barriro joateko gogoia gelditzen zaidan edo ez.

URBALTZ



TABERNA

Mitarte 21, behea

Tfnoa: 79 79 79

ARETXABALETA



J. ALTUNA

Zurgindegia

Sukalderako
altzaria

Basabe Poligonoa, A-2-3
79 72 55 Aretxabaleta

Izozkiteki-Gozotegi

IZOZKITEGI

Otalora, 11

Tfnoa: 79 93 58

ARETXABALETA



Sorgin maltzurra

Kurtzebarri Eskolako 3. eta 4. mailako ikasleek ipuin tailerra egin zuten kurtso hasieran. Ipuin desberdinak asmatu zituzten gelako guztien artean eta baita ipuin bakoitzari zegokion marrazkia margotu ere. Adi adi irakurri ezazue ipuina eta sorginari ze gertatu zitzaien jakingo duzue.

SORGINEN-MALTZURRAK

Orain dela urte batzuk herri teiki batetan sorgin maltzur bat bihurtu zen. Bete onatzearekin gauzak mundua josten zen eta eguzki printzesa bat aurkitu nahian aritzen zen, herari ile ederra berak zekana, ile pataonarengatik aldatzeko.

Egun batetan gaztelu bat aurkitu zuen eta printzesa zuzen hant, ile polita zuen printzesa bat bihurtu zela, baina, hura sormesa! Bete sorgin, itsusi batekin elkartu zen, bere asmo berdina zuen sorgin batekin, hain zuzen ere. Biak edabe magiko bat prestatzeko formula asmatzen hasi ziren eta bitartean bi printzesa bihurtu ziren gaztelu bat aurkitu zuten.

Halako batetan bi sorgin zitalak edabearren formula asmatu zituzten, beraien onatzeak hartu eta gaztelurantz abiatu ziren. Haldu zirenean edabea edan eta printzesa bote edan orain zuzen orduan... heri sartatu zen? Ba... printzesak bitan gelditu zirela eta sorgin paterlak, ilea aldatu ordez, egel bihurtu zirela berriak buru soil geldituz Amoreu biziz, saltzka, gaztelu bitik aldentu ziren formulak non hutsaquin zuen uleratu ezinrik.

Bitartean bi printze gazteluraino hurbildu ziren, printzerak bitan ikusitako bakoitzari musu bana eman zuten eta orduan... emate egin zuten Orain printzesak lehen bana ile luze eta edoragora zuten.

Goriztik lauak eta zoriotsu bihurtu ziren gazteluan.



MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Martín
RELOJERA - OPTICA

Bere bezeroen zerbitzuan
Mitarte, 16
Tfnoa: 79 01 72

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S.A.**

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

**ARLUTZ
TABERNA**

Mitarte, 16 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 32 34

SHOT!
grabaciones

ARRASATE

Gipuzkoa



SHOT! Grabaketak S.L.
Araba Etorbidea, 3-2. solairua
Eskatu Pabiloia
☎ 943-79 37 51



I 939. urteko ekainean bukatu zen Gerra Zibila. Honen ostetxoan, gerraren amaiera ospatzeko, gure herriko lantegi haundienek bazkaria eman zieten bertako langileei. Beroa eta Zubia lantegiek esaterako langileei bazkari bat emanez ospatu zuten gertaera hau, zapateria Leanizbarrutiak eta Valle de Lenizekoek barrez, kafea izan zuten.

Goiko argazkia Beroa lantegian aterata dago. 130 bat lagun joan ziren bazkarira. Sasoi hartan Beroa militarizatuta zegoen eta ejerzitorako materiala produzitzen zuen, kantiplora, aluminiozko goilare, tenedora, plato, e.a.

Egun haundia izan zen hura. Arratsaldean erromeria egon zen herriko plazan.

Argazkian ageri direnak hauexek dira:

Ezkerrean, aurretik atzera: **Luis Arrue** (zuzendaria), **Hermenegildo Galdos**, **Julian Elorza**, **Benigno Lasa**, **Polikarpo Bengoa**, **Lazaro Galdos** (eskoriatzarra), **Pedro Lopez de Uralde**.

Eskuman, aurretik atzera: **Roman Galdos**, **Antonio Martinez de Agirre**, **Silvestre Idigoras**, **Alejandro Bengoa**.

Izen gutxi



M.J. Aretxaga

Bukatu ziren aurreko astean aipatzen nituen zoro-haizeak. Orain ez dago manga motzean ibiltzerik. Azken egunetako hotzak ez dauka urrian egin duen eguraldi epelaren antzik. Hezurretaraino be sartzan da hotza eta negua badatorrela igarten da. Aurreko batean, eguerdiko eguzkiaren berotasuna aprobeztatuz Apotza-Etxebarriraino joan nintzen eta harrituta gelditu nintzen bertan jarri duten antena ikusita. Begietara be txoke egiten zuen. AIRTEL enpresak jarri du antena, hori, telefono mobilerako.

Begiko mina beste gauza batek be egin dit. Kurtzebarri eskola baino gorago, "Ikastetxe kontuz" margotu dute bidean. Nik ez dakit pintura gastatu edo ze gertatu

zitzaien hori margotzen aritu zirenei baina begiko min galanta egiten du hori irakurtzeak. AAAAAAAAAAAAAA!!!

Baina dena ez da hain negatiboa izan. Mexiko aldetik notizi onik ere heldu da. **Asier Guenetxea** bigarren sartu zen Ruta Mexikoko lehenengo etapan, aurrea hartu zion Michel Angelo Canzek. klasifikazioan aurre xamarrean dago.

Klasifikazioan nahiko aurrean dagoena UDA da. Laugarren postuan dago. Azkenengo partiduan irabazi egin zuen bergararren aurka. Kanpoan jokatu eta gainera 2-4 irabazi, hori da marka. **Alberto Garrok** 2 gol sartu zituen eta beste biak arrasatearra den **Kermanek** sartu zituen.

Hauek baino justuago ibili zirenak Aretxabaleta A. eskubaloikoak izan ziren. Puntu bakar bategatik irabazi zioten Pasaiako taldeari. 18-17 izan zen azkenengo emaitza. Azken finean irabazteak balio du hemen.

Oraingo aste honetan, beste herriko intsumiso bat ere epaitu dute, **Mikel Larrinaga** hain zuzen ere. Herria insumisos beteko zaigu laster, dagoeneko 10etik gora dira gure herrian epaitu dituzten insumisoak.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Emakume heldua behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 77 10 62
- 1.go mailatik 8. mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. 79 24 19
- 20 eta 33 urtetako bi neska, umeak edo hiru-garren adinekoak zaintzeko prest daude. Telefonoa 79 96 24 da eta Txaro edo Begoñagatik galdetu.
- Klase partikularrak emango nituzke, 2. REMerarte. Telefonoa: 79 27 14

ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta altzariz jantzita dago. Gauzez deitu ondorengo telefonora: 71 40 47
- Bergaran 50 m² etxebizitza salgai. Berritua eta oso prezio interesgarrian. Telefonoa 715349 Deitu gaueko Setatik 10etara bitartean.
- Gasteizen, unibertsitatetik gertu, bi ikaslerendako pentzio osoa eskaintzen da. Deitu (945) 26 73 28 telefonora. (Patxi).

- Pertsona bat behar dugu Bilbon pisua konpartitzeko. Interesatuok deitu telefono honetara lehenbailehen. 79 39 10 (Mikel).
- Aretxabaleta edo inguruko herri batean logela individual baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko baimenarekin. Deitu 35 13 28 edo 51 78 44 telefonora eta Jabierregatik galdetu.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak e.a.) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.



Ana Rodriguez

"Iturgintza lanak egiten ditugu"



Amaia Berri dendan lan egiten du Ana Rodriguezek. Administrazioaile lanak egiten ditu. Iturgintza inguruko lanetan mugitzen da denda hau, gas instalazioak, kalefazioa ipini, e.a. egiten dute.

• Non bizi zara?

Eskoriatzan bizi naiz. Lehenengo Antzuolan bizi nintzen eta gero Arrasaten ere bizi izan naiz.

• Noiz zabaldu zen Amaia Berri denda?

1992. urtean.

• Zenbatek lan egiten duzue?

Hamar pertsona gabilza lanean.

• Ze produktu eta zerbitzu eskaintzen dituzue?

Garrantzitsuena iturgintza arloa da guretzat.

Kalefazioa, gas instalazioak, aire akondizionatua, bainurako altzariak, e.a.

• Bainugela txikiak ala haundiak jartzen dira orain gehiago?

Txikiak.

• Eta zenbat bainu jartzen dira etxe bakoitzeko?

Etxe barrietan edo obra barriak egin ezker bainugela eta komuna jartzen dira. Lehenengo etxeek bainugela bakarria dute gehienek.

• Saltzaile on batek ze ezaugarri izan behar ditu?

Karakter ona eduki behar du. Bere iritzia eman behar du baina inoiz ez bestearen gainetik ezarri.

• Zuri ze gustatzen zaizu gehiago entzutea ala berba egitea?

Ni entzutekoa naiz gehiago.

• Ezkondua?

Bai.

• Umerik?

Esperoan nago bat.

• Gustatzen ez zaizun janari bat...

Lentejak, urteak dira jaten ez ditudana.

• Eta gustoko duzun janaria...

Baba gorriak txorizo eta mortzilakin.

• Futbol ekipo bat.

Egia esan, futbola ez zait asko gustatzen baina talde bat esatekotan Erreal.

• Aretxabaletako gauza polit bat.


Herri moduan Aretxabaleta asko gustatzen zait. Gune berde asko ditu eta pasealekuak ere bai.

• Ze du ona udazkenak eta ze txarra?

Udazkena romantikoa delako gustatzen zait. Eguraldia hoztu eta txartu egiten da beste aldetik eta niri eguraldi ona gustatzen zait.

• Zein da galitzen ez duzun telebistako programa?

Melrose Place.



Nerian Perez dugu aurreko alean saritu suertatu zena.


Zorionak!!!

Beheko laukian Aretxabaletako zazpi mendiren izenak aurkitu beharko dituzu:

K	A	T	Z	K	I	T	Z	E	N	M	K
H	I	R	U	H	A	I	T	Z	E	U	U
I	I	K	M	Z	N	T	Z	O	R	R	X
H	A	O	R	T	A	N	D	T	U	T	Z
M	U	I	Z	U	P	T	Z	K	G	A	X
A	M	M	F	L	A	E	Z	T	N	N	H
N	A	S	O	R	B	P	U	H	A	T	F
P	T	A	T	A	S	X	O	E	R	U	Z
T	E	S	R	H	U	R	U	M	A	M	K
A	G	R	O	E	Z	X	H	E	X	I	H
I	I	O	T	R	A	D	N	A	O	T	T
H	A	I	N	Z	T	U	K	O	T	Z	A

Zenbakiak jarraituz osatu honako irudi hau.

Oharra:52ra heldutakoan, 53a 35ekin lotu behar da



BERGARA



Udazken kulturara

Azaroak 18

ZINEAREN 100. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA

Aintzinako zine mutua, musika biziaz lagunduta.

"Forum Cinematographe" taldeak prestatuta.

Egitaraua: "Viaje a la luna" Georges Méliès; "Asalto a un tren" Edward S. Porter; "El tesoro escondido" Gregori La Cava; "Las tres luces" Fritz Lang. Novedades Aretoan izango da eguerdiko 12,30etan. Sarrera 500 pezeta.

Azaroak 24 eguakotxa

MASKARADA ANTZERKI TALDEAREN ANTZEZLANA

"Ernesto izatearen garrantzia" obraren antzezikizuna. Novedades Aretoan izango da gaueko 10,30etan. Sarrera 500 pezeta.

ARRASATE



Azaroak 11

TXIRRI MIRRI ETA TXIRIBITON

Arratsaldeko 5etan eta 7retan Amaia Antzokian

TXIRRI MIRRI ETA TXIRIBITON pailazoek "Allakuidaus" ikuskizuna eskainiko dute.

Azaroak 13, 15, 16

BIZITZA NATURALARI BURUZKO HITZALDI ZIKLOA

Hiru egun hauetan zehar "Bizitza naturala"ri buruzko hitzaldi zikloa izango da Monterron kultur etxean arratsaldeko 7retan.

ZINEA

Gaueko 9,30etan Amaia Antzokian zinea. "Exotica" filmea. Sarrera 350 pezeta, gazte txartelarekin 300 pezeta.

Azaroak 19 domeka

KONTZERTUA

Lefoniako Orkestra Nazionalaren kontzertua izango da Amaia Antzokian arratsaldeko 7,30etan. Arrasate Musikalek antolatuta.

ESKORIATZA



Udazken kulturara

Azaroak 2-12

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

Peruri buruzko erakusketa eta salmenta, COPRODELI elkartearen eskutik. Elkarte hau Peruko zonalde marginatuetoako behartsuei laguntzeaz arduratzen da.

Arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean eta jai egunetan eguerdiko ordu 1etatik ordu 2etara bitartean, ikusgai izango da Kultur etxean.

Azaroak 10, 17 eta 22

HITZALDIA

"Permakultura, XXI. mendeko iraultza". Eskoriatzako baserri, udalerrri eta basoak aztertuko dira. Hizlariak: Steve Starr eta Isabel Guridi dira. Museo-Eskolan izango da arratsaldeko 6,30etan.

Azaroak 14 martizena

DIAPPOSITIBA EMANALDIA

"Txamonisko glaziarrek" diapositiba emanaldia egongo da Nekane Intxaustiren eskutik. Arratsaldeko 6,30etan izango da kultur etxean.

Azaroak 15 eguaztena

BIDEO EMANALDIA

"Aitzorrotzeko historia". Arratsaldeko 7etan izango da kultur etxean.

Azaroak 17 eguakotxa

PERMAKULTURARI BURUZKO HITZALDIA

Arratsaldeko 6,30etan izango da Museo-Eskolan

Azaroak 20 astelehena

DIAPPOSITIBA EMANALDIA

"Gipuzkoa 1915-1945". Arratsaldeko 7etan izango da kultur etxean. Hizlaria: Kepa Gonzalez.

Azaroak 21 martizena

DIAPPOSITIBA EMANALDIA

"Kuba". Arratsaldeko 7etan izango da kultur etxean. Hizlaria: Iñaki Agiriano.

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozategia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Militaria 1 - Tfn. 77 00 81

Aretxabaleta

Obrador Propio

PAGALDAI

Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14

ARETXABALETA

ARETXABALETA



HIES Ekimena eta Udaleko prebentzio zerbitzuak antolatuta HIESaren inguruko sensibilizazio astea

Azaroak 14-17

“TESTIMONIOS SONOROS-ANTORTXA” EKITALDIA
 Herritar guztiontzat, “Testimonios sonoros-Antortxa” ekitaldia egongo da egunero herriko plazan 6retatik 8retara. HIES Ekimena eta Aretxabaletako Udaleko prebentzio zerbitzuaren eskutik.

Azaroak 15 eguaztena

INFORMAZIO BIDEOAK
 HIESaren inguruko informazio bideo emanaldia egongo da eskolaurrean arratsaldeko 6retatik 8retara.

Azaroak 16 eguena

HIESaren BIRUSAREN INGURUKO MAHAI INGURUA
 Medikua, afektatua eta beste familiako bat etorriko dira. Arratsaldeko 7retan izango da eskolaurrean.

Azaroak 17 eguakotxa

PELIKULA ETA DEBATEA
 “El aceite de la vida” Arratsaldeko 6,30etan izango da eskolaurrean.

Azaroak 19 domeka

TRABESIA LIZARRUSTI-AMEZKETA
 Murruxiko M. Elkarteak **trabesia** antolatu du **Lizarrustitik** Amezketara. Gazte eta ikasleentzat autobusa dohainik da

Azaroak 20-23

GURASOEN ARTEKO II. TOPAKETAK
 Kurtzebarri eskolan arratsaldeko 6retatik 8retara. Izena emateko Kurtzebarri eskolan edo udaletxean egin daiteke azaroaren 17a baino lehenago.

Azaroak 10 eguakotxa

TXINAKO KONFERENTZIAN BERBA EGIN ZENARI BURUZKO HITZALDIA LORAMENDI Elkarteko **Tril emakume taldeak**, Txinan Emakumeari buruzko konferentzian berba egin zenari buruzko hitzaldia antolatu du. Hitzaldia **Amaia Zabaleta** bergararrak emango du eta Loramendiko lokalean izango da arratsaldeko 7,30etan.

Azaroak 11 zapatua

SAN MILLAN JAIK ARKARAZON
 Egitarua hamabostean behinen.

GAZTE URTEERA LORAMENDI E.ko eta MURRUKIXO MENDI elkarteko gazteek antolatuta Urbixara egun osorako urteera egongo da. Urteeran Urbixan egiten ari diren txondorra ikusteko asmoa dago. Goizeko 9etan izango da urteera Partenoitik. Apuntatzeko azken eguna Loramendiko edo Murruxikoko lokalean azaroaren 10a baino lehen.

ARETXABALETA A. ESKUBALOI-HERNANI
 Partidua arratsaldeko 6retan izango da Aretxabaletako kiroldegian.

Azaroak 12 domeka

ZARIA MENDI TALDEAREN URTEERA
 Zaria M.T. **Gazteluaitzera** egingo du urteera.

UDA-TOLOSA
 Ibarra izango da arratsaldeko 4,30etan.

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxiko M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkarte 79 33 99
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8 Aralar z/g
 Tfnoa: 79 19 34 Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
 ☎ 79 34 28
ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

LongLife
Larga vida

**Kalitate goreneko
larrurik naturalena.**



5 urteko garantiaz

Eta LongLife modelo
baten erosketagatik larrua
garbitzeko eta
mantentzeko produktu
aukera osoa jasoko duzuz!



grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme interiores, Garibai, 9 ARRASATE • Tfnoa: 79 15 03
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE • Tfnoa: 77 14 92